



# Elur giroko urte hasiera

Euria, hotza eta elurra nagusitu da urtearen hasieran. Irudikoa Adarra eta Donostialdeko paisaia da, Onddo Andoaingo menditik ateratakoa / 2-4



- ▶ **HH/LH** (HH/LHko eraikina)  
**URTARRILAren 16an 11:00etan**
- ▶ **DBH** (Batxilergo/DBHko eraikina)  
**URTARRILAren 13 eta 16an**  
Hitzordua beharrezkoa da web orrian hartzea



**magale**  
IKASTETXEA

[www.magaleikastetxea.eus](http://www.magaleikastetxea.eus)  
943 55 17 82 (HH · LH) / 943 55 17 89 (DBH · BATX.)



Usabelartzan jarrita, izotza eta elurra nagusi ziren. Goizeko lehen orduetan tenperatura 0 azpikoa zen. AIURRI

# Elur giroko urte hasiera

Sekula baino mendizale gutxiago igo zen Adarramendiko paraje elurtuetara, urteko lehen goizarekin batera errepika izan den errituari jarraipena eman nahian. Euskalduna Mendigoizale elkartearen salda dastatu gabe jaitsi ziren, goiz hartako mendizaleak


**Xabier Lasa** ANDOAIN

Arrazoiak topatzen hasita, bat baino gehiago aipa dezakegu. Zero azpiko tenperatura; zeru ilunen euri mehatxua; Euskaldunako boluntarioen salda be-roaren falta; ekitaldi sozialetarako jendearen gogo atzendu duen pandemia nazkagarria; goizeko 08:00etarako Xoxokako errepidea ibilgailuentzat moztu izana...

Ez dira gutxi izaten Otieta-Iyuya-Usabelartzan barrena doan bide aldapatsutik abiatzen diren mendizaleak, biderik politena dela pentsatzeaz gain Besabitik gora pilatzen den jende uholdea saihesteko aukera ematen duelako. Aurten, handik ere goiztiar gutxi sumatu da. Horien artetik, gehiago nabarmendu ziren Otietatik abiatuta Lapurtxuloko pistan gora animatu ziren mendi-

bizikleta zaleak, ibiltariak baino. Aipatzekoa da ere motozale eta quad zaleen presentzia zaratsua, Usabelartzako belardi urtsuetara, Onddora, Eteneta inguruetara eta nahi duten tokitara aitaren batean iristen direnak.

Eskertzekoa ere Etenetako zutarritik gertu, DYA-koen egonaldia; zer gerta ere osasunlaguntza eskaintzeko prest egon baitziren.



Eguzki izpiek eta elurrak paisaia ikusgarriak osatu zituzten. DIEGOBARRASA

## Irudi ikusgarriak urtarrilaren 1ean



Adarra, Eteneta aldetik. DIEGOBARRASA

**Eteneta urte berri egunean** Mendizale, korrikalari eta txirrinduzaleentzat aski ezaguna da Eteneta, eta urte berri egunean paisaia zuria nagusitzen ari zen. Batek baino gehiagok argazkiak ateratzeko aukera baliatu zuen.



Donostialdea Adarramenditik. @METEOANDAIN

**Ostarteak ostiral goizean** Urte berri eguneko elurra, hurrengo egunetan zetorrenaren aurrerapena baina ez zen izan. Eta horrek eragin zuen jendetza elkartzea urtarrilaren 2an eta bereziki 3an. Besabi inguruak ibilgailuz bete ziren.



Goizaldean abiatu zen mendizale taldea Urnietatik. @URNIETAMETEO

**Argitzen ari zela abiatu ziren Adarramendira** Jonathan Martinez urnietarrak helarazitako irudietan ikus daitekeenez, frontala buruan abiatu ziren Adarramendira. Lehen orduan mendi gainean ziren, urteko lehen orduz mendialdean gozatzen.



IRITZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

## Ezberdina

Ezberdina izan behar zuen 2021eko Adarramendiko igoerak, nahitaez. Guk bestela izaten saiatu edo ez. Eta hala izan zen: ezberdina.

Ezberdina, Besabitik zuri-zuri ikusten zelako gure tontor sakratuko azken malda eta gailurra. Bagenekien hala izan zitekeela, baina elurrak, izotzak eta hotzak beti ematen dute errespetua. Urtero egiten dugun kalkulua da, ez dakit zehatz aritzen ote garen, zenbatgarren urtea den Adarramendira igotzen garela urteko lehen egunean. 22 edo 23. bota zuen Eñaut lagunak. Zenbakiekin-eta txukun samar moldatzen da, egia izan bide da baieztapen hori. Ba guzti horietan elurrarekin igo izanaren oroitzapenik ez. Egia da gure memoriak bide txikia izaten duela, rekuerto berrienak gogoratu, eta zaharrenak alboratzen ditugula. Jonathan hor aritzen da, isobara eta datuekin bueltaka. Berarentzat 12. urtea segidan Adarran urte berri egunean, elurrik ez omen du oroitzen. Ezberdina.

Ezberdina azken maldan elurra zapalduz egin genuelako bidea. Bi gailurren arteko lepoan 6-8 zentimetro elur zegoelako. Ezberdina tontorrean egoteko ez zelako zenbakirik hartu behar harategiko ilaran. Ezberdina Jonathan-ek halako temperatura neurgailua eman zuelako, sentsazio termikoa neurtzen duena, jotzen duen haizearen arabera. Kuriosoa temperatura nola aldatzen den haize boladaren indarraren arabera. -3.4 neurtu zuen, temperaturarik hotzena. Hori ere ezberdina.

Eta ezberdina Euskalduna mendi taldeko kideak ez zeudelako beti egoten diren tokian. Berotasuna, elkarrizketa ematen, jende taldeak sortzen laguntzen. Batzuentzat garrantzirik gabeko kontua izango da, nik asko bota nituen faltan. 2022an han izateko esperantza bizirik!

Ezberdina jende kopurua. Etxera bueltan autoa hartu arte ez ginen jabetu, baina 2021eko lehen egunean ohikoa baino askoz jende gutxiago zegoen. Askoz gutxiago diodanean, ohiko igande batean baino askoz gutxiago esan nahi da. Autoak Armuntoko bidegurutzeraino bakarrik iristen ziren. Ez sinesteko modukoa. Udaltzainak ere harrিতuta zeuden.

Ezberdina jaitsiera, apenas izan baitzen erorikorik gure artean, zorua oso irristakorra bazegoen ere. Zer esanik ez Arlegorko lepotik Antxoko Etxolaraino doan tartean.

Ezberdina Besabiko iritsiera. Parranda egin ezin izan zuten parranderorik gabe, balantzaka eta oihuka zebilen ezagunik ez. Ez erretegi atarian, behintzat. Barruan bestelakoa zen egoera. Bakarren batzuk gozoak zeuden. Informazioa horraino, badaezpada...

Ezberdina mendi buelta osteko ospakizuna. Azken 10-12 urtetan Hernaniko Peña Otaño txokoa elkartu izan gara, eta Euker Garmendia eta Mikel Iturberi merezi ez duten lana eman, hamaiketako eta bazkari latza prestatzen: salda, txorixoa, arrautzak, odolkoa, solomoa, txokolatea, txurroak, Esnal okindegiko Errege Opil goxoa, kafe osteko kopak... Zer ez dugu jan / edaten han? Eta ze giro? 20-25 lagun, zahar eta gazte, bospasei familiakoak, gora eta behera. Urteko egunik ederrenetakoa, zalantzarik gabe. Aurten petit comite-n egin behar izan dugu hamaiketako, Guria Tabernan. Dotore zaindu gintuzten Xabi eta Oscar

**2021EKO LEHEN EGUNEAN OHIKOA DENA BAINO ASKOZ JENDE GUTXIAGO ZEGOEN**

zerbitzariak, eta haiei ere eskerrak.

Ezberdina siesta. Hori ere urte berri guztietan egin izan dut, baina arratsaldeko 16:00-17:00ak aldera hasi eta afaltzeko garaia arte. Aurten eguardean oheratu, eta lauak, bostak aldera jaiki. Urte berri eguneko pilota partida ikusi nuen, aldaketari esker. Ikusi, edo antzeko zerbait.

Berdinak, edo antzekoak izan ziren gauzak ere egon ziren, ez pentsa. Juanjo zaharra presa sartzen, Besabira lehenago joateko, jende asko ibiliko zelako... Edota Paul-i eman zizkion mendizale lezioak, mendian gora eta behera, gaztea aspertzaraino... Edota Mikel Iturbe, Turbo guretzat, tropela mantsoegi joan, eta hoztu nahi ez zuelako turboa jarri eta denok baino lehen iritsi zelako gailurrera. Urtero bezala. Tontorraren magalean zeuden Ane eta Agate Arregi han zain zirela jabetu ere ez zen egin. Beharokan ere antzera. Besabin salda bero bat hartzeko astia eman zion, talde guztia Besabiraino iritsi aurretik. Ez baitaki mendian mantso ibiltzen!

Eta berdina, zoritxarrez, bazkalostean herriko kiroldegiko futbol zelaian lur hartzen ikusi genuen helikopteroa, Adarramendin erreskate bat egin ondoren. Garrantzitsuen bueltatzea baita, lagun. Eta onik. Beti!!! Urte berri on!

Eta bukatzeko, ezberdina biharamuna ere, taldeko bi kide Noticias de Gipuzkoa egunkariko azalean azaldu baitziren lehen orrian. Batek besteak baino itxura hobea zeukan, egiari zor. Eta hain ongi atera ez zenak ez zuen ondo hartu... Twitter sare sozialean jartzen diren argazkiak publikoak direla esan nion, ezin zela ezer egin. Nor den esan gabe ere asmatuko duzue nor den, gure taldeko ermitaua...

Urte Berri On!



Urtarrilaren 4an, Adarramendira igotzeko bidean, elur asko zegoen pilatuta. Mendigainera iritsita elurra eta izotza nagusi zen. AIURRI

## Filomenaren baitan, elurraren zain

Izen hori jarri dioten borraska ekialderago edo mendebalderago kokatu, zuritzea espero da asteburuan

**Andoni Urbistondo** URNIETA

Atmosfera kaotikoa den bezala, elur zaleen grina eta gosea ere bai. Kaotikoa baino, amorragarria. Beterriko mendietan lodi zuritu du azken astean, metroa pasa Ernion, metrotik gertu Zelatunen, eta 35 zentimetro Adarramendiko tontorrean. Baina herrietan apenas ezer ez, Alkiza eta Larraulen, eskualdeko herri garaienetan izan ezik. Edonor aberats eginen lukeen galdera egin eta egin ari da jendea: "zurituko al du herrian?". Ba ezin esan zehatz-mehatz. Kontua da Espainiako hegoaldea eta Levante aldea gogor astinduko dituen borraska bat dabilela jira eta buelta eta haren mugimendua, kokapena erabakigarria izango dela gurean

elurra egingo duen edo ez jakiteko. Borraska horri jarri dioten izenak ere artikulatu baterako emango luke... Filomena izena jarri diote. Hala tokatzen omen zen, zerrendan.

Asteazken eguerdiko prebisioen arabera, ostiral iluntze eta larunbat egun osorako txoko guztietan espero zen elurteak indarra galdu du, prezipitazio faltatik. Filomena espero baino ekialderago joango da, eta horrek prezipitazioa gutxiago ekarriko

**LARUNBAT OSOAN ZEHAR 0 ETA 4 GRADU ARTEKO TEMPERATURA AURREIKUSTEN DA**

omen du gurera. 24 ordu lehena, ordea, aurreikuspenek elur gehiago markatzen zuten gurean, beraz litekeena da 24 ordutan aldaketak egotea, Filomena borraskek nora joan erabaki arte.

Egoera hau 2018ko otsaileko azken egunean gertatu zenaren antzekoa da. Orduan ere Europako haize masa hotzak egun batzuk Euskal Herrian pasatzea

erabaki zuen, eta hegotik borraska euritsu eta hezea etorri zen. Masa hotzarekin talka egitean sekulako elurtea bota zuen, 20 bat zentimetro. Hori bai, eguerdirako dena jan zuen, temperaturak igotzearekin bat. Orain, punturik kritikoa, larunbata dirudi. Egun osoz. AEMET Espainiako meteorologia agentziak 0 eta 4 gradu artean markatzen du eskualdean, eta

elur prezipitazioa egiteko arriskua %80koa. 72 orduko epea arrazoizko epea da meteorologian, baina %50-60ko fidagarritasuna ematen duena, ez gehiago. Igan de eta astelehenean samurtzera eginen luke, itxuraz, eta hurrengo astean eguzkiaz gozatzeko aukera izan genezake. Hori bai, joango ez dena hotza izango da, batez ere gau eta goizeko lehen orduetan.



**Aiurri eskuragarri:**  
Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da. Urmietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**  
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

**Zuzendaria:** Jon Ander Ubeda.  
**Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.  
**Maketzailea:** Maddi Trutxuelo.  
**Kudeaketa, harpidetzak:** Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus  
**Publizitatea:** Fer Irazu. publicitate@aiurri.eus  
**Banatzaleak:** Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi eta Joxe Mari Sagaseta (Urmietan).  
**Diseinua:** Goienna Komunikazio Taldea.  
**Zorion agurrak, merkatu txikia:** diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 4.000 ale.  
**Inprimategia:** Zerua Multimedia.

EKOIZLEA: **ERROITZ** **ALTIATUAK:** **ERROITZ** **ERROITZ** **TOKIKOM**

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

## KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



IRITZIA

FELIPE IZAGIRRE URNIETA

## Oroimen Gabonak

Martxoa aldera, izurria gurean sartu zenean, harri eta zur geratu ginen zer egin ez genekiela. Txinatik omen zetorren, baina ez genekien nola sartu zen gurean. Izena bagenekien: COVID-19. Birusa hasi zen bereak egiten, batik bat adineko pertsonengan. Eta hortik aurrera hasi zen hildakoen kopurua handitzen. Etxeratu gintuzten eta hor egon ginen egunak eta egunak itxialdian, gaueko 20:00ak aldera osasun langileei leihotik txalotzera irteten ginen arte.

Itxialdia hasi bezain laster, berriz, artaldearen modura sailkatu gintuzten: adinekoak, tartekoak, gazteak eta haurrak. Adinekoak ordu jakinetan irten behar genuen eta, batez ere, adinekook haur bihurtu gintuzten. Eta handik eta hemendik, eruki faltsuaz zenbaitetan, hasi ziren beldurra sartzen: nola aterako ginen etxetik kutsatzeko arriskua hain handia izanik. Honekin ez dut baztertu eta are gutxiago kondenatu nahi errukia. Sentimendu noblea da, dudarik ez, baina pertsonak orokortu beharrean garrantzia da norbanakoaren askatasuna eta erabakiak errespetatzea. Bestela betikoan gaude: adinekoak haur bilakatu eta gure erara erabiltzen ditugula. Egia da, nola ez, pandemiaren ondorengo itxialdian errukia, elkartasuna, laguntza orokorra... sentimendu nobleak

azaleratu direla gizartearen, nahiz eta ez dakidan orain lehenera iristen ari garen honetan sentimendu horiek irauten duten. Baina tira, nik uste oreka bilatu behar dela norbanakoaren eta gizartearen artean, bestela erraz sortzen da zapalkuntza eta bestearen askatasuna arriskuan jartzen da. Gizabanako garen aldetik ere pandemiak eraman gaituen itxialdiak izan du eraginik gure bizitzan: asko mintzatu da depresioaz, antsietateaz, beldurraz eta antzeko sentimenduez. Garrantzitsua deritzot norberak dituen lanabesak erabiltzea momentuan momentuko egoera bizi ahal izateko. Erlajazioa, gorputz eta gogamen lanak; ez baita erraza horrelako egoera batean baliabide horiek gabe iraun ahal izatea.

Pandemiak, halaber, milaka pertsona eraman du heriotzara, baina heriotza krudelki erabilia izan da, hildakoak objektu bailiran utziak izan baitira. Hasieran hildakoen kopurua hedabideetan ematen zutenean harridura agertzen genuen. Denboraren poderioz, baina,

**BIZI DOLUA.  
HILDAKOAREN IZAERA  
MAHAI GAINEAN  
JARRI ETA BRINDISA  
EGIN BERARENGATIK**



ohitzen joan gara. Heriotza pandemia garaian devaluatua izan da. Gure azken momentuko gertaera izanik merezi zuen beste tratamendu bat. Ez dakit UCI-ZIUtan zein tratamendu eman zaion; gaixoaren autonomia zenbateraino errespetatu den; bizitzea hala hiltzea aukeratzetik izan ote duen. Galdera asko dira. Heriotzari ez zaio lekuri eman eta bizitza absolutu bilakatu da. Gaixoren bat aurrera ateratzen zenean txaloz eta alaitasun oihuz hartzen zen; aldiz, hil zenean ezjakinarena egin eta lehenbailehen baztertu. Familiakoei ikusteko aukerarik ere ez zaie eman, ezta duintasunez lurperatzeko aukerarik eman ere. Heriotzak ere bizitzak bezainbat duintasun merezi du jaiotza eta heriotza baitira gizakion bi ekingintza nagusienetakoak.

Tristeza iruditu zait pandemia garaian heriotzak izan duen tratamendua. Hedabideek, halaber, egunean zenbat hil ziren jakinarazten zuten, baina ez nola hil ziren.

Pandemiak, noski, beste zenbait arlo ere ziprztindu ditu: hala nola, politika, erakundeak eta gizarte mailan krisi ekonomikoa.

Politikari dagokionez, ego asko azaleratu dira eta boterea ere pil-pilean egon da. Askotan enpatia gutxi elkarrekin lanak egiteko. Maila honetan, Euskal Legebiltzarrean oposizioaren aldetik asko kritikatu da, eta nire ustez arrazoiarekin. Erabakiak, azterketak ez dira partekatatu; oskurantismo gehiegi. Hori bai, Gobernu zentralari etengabe eskatu zaio gobernantz, autonomia eta ez deritzo gaizki; baina etxean ere eskaera horiek

praxian jarri behar dira eta oposizioarekin eta zenbait erakunderekin partekatzea ez legoke gaizki. LABI edo gune horretan ez dakit nortzuk diren parte, baina, egia esan, bozeramaileak ez dit jakitun aldetik konfiantza gehiegi eman. Gurean ere, egon behar dute zientzialari, epidemiologo eta gaixotasun kontuan jakitun direnak. Oker ez banago, EHBilduk Legebiltzarrean mahai gainean jarri zuen horrelako pertsonen osaturiko batzorde bat osatu beharra, zeinak jarraipena egingo liokeen non edo zein gunetan ematen den kutsatze gehiago. Ez dut uste proposamena ontzat hartu zenik ere.

Eta itxaropen argia, txertoarena alegia, gurean piztu den gabon hauetan, hainbat eta hainbat familiak hutsune handiz bizi izan du eta biziko ditu Gabonak. Oroimen gabonak erabili dut artikulu honen izenburutzat. Lehen aipaturiko heriotzaren tratamenduak, bakardadeak eta hutsuneak markatu ditu zenbaiten gabon egunak. Baina hor dugu oroimena, hor dugu bihotza gure aurrekoekin harremanetan jar gaitzakeena. Bizi dolua. Etxean hutsunea eta izatera mahai gainean jarri eta brindisa egin berarengatik. Ihesak ez du lortuko dolu egoki bat egitea, bizi norberak ahal duen edota nahi duen modurik egokienean.

Eta urte berri on, Aiurritar guztioi!



Ane Jalon eta Garazi Kamio, Zelai ahizpen paperean. AIURRI

# Kanpaikadak Maindi iturritik

Urteari amaiera emateko sorpresatxoa prestatu zuen Aiurrik, Maindi iturria Zelai ahizpen agertoki bilakatuz. Udaberriko konfinamenduan protagonismo berezia hartu zuen bikotea berragertu egin zen Gabonetan, kanpaikaden saio berezia eskaintzeko

## Aiurri komunitatea

Jon Ander Ubeda / ANDOAIN

Aiurriko lantaldean konfinamendu garaiko izpiritua berragertu egin zen Gabonen atarian, informazioa eta aisialdia uzartzeko erabakia hartu zenean. Abenduaren 18an hasita, ekoizpen dotorea prestatzen hasita geunden Urrietako Egape dantza taldearekin batera, Olentzero eta Mari Domingi protagonistatzat harturik. Zeinen erraza den Rosa Elozegi eta Isidro Salinas bezalako herrikide eredugarriekin lan egitea!

Grabazio horren prestaketa lanetan murgilduta genbiltzala Garazi Kamio eta Ane Jalonen deia jaso genuen. Kanpaikadak emateko prest zeudela, Zelai ahizpak biziberrituta. Eguna eta tokia zehaztu ziguten. Baita ordua ere! Gauzak hain argi zituztenez, gainerako guztia martxan jartzea besterik ez zen falta.

Abenduaren 22an, gaueko 21:15ak aldera, Maindi iturriaren parean hasi zen muntaketa lana.

Ez ginen Aiurrikoak bakarrik lanean aritu. Laguntza eskatu behar bada, lanpetuta dagoenari eskatzea bezalakorik ez dago. Horiek ez dute inoiz hutsik egingen. Eta hantxe agertu ziren haiaika jardueretan burubelarri aritzen diren Arantza Aguado eta Ainhoa Aiertza, Alberto Rubio lagun zutela.

Dena esatera, abenduaren 22ko gaueko grabazioa baimen guztiak eskatuta egin zen. Udalaren eta Udaltzaingoaren oniritzia bagenuen, baina grabaketa saioa normaltasun berriak galerazten duen ordutegian egingo zenez, aurreikusi zitekeen Ertzaintzaren agerpena. Aingurasutegitik sartuta, Zumea kaleko norabidea hartu zuten. Bi ertzainak ibil-

**AIURRI.EUS GUNEAN,  
BIDEOEN ATALEAN,  
GRABAKETA SAIOA  
ETA MAKING-OFFA  
IKUSGAI DAUDE**

gailutik atera orduko eskuetan nituen baimen guztiak. Lastima atsegin aritu ziren bi ertzainek euskaraz tutik ere egin ez izana.

Harrigarriki ondo atera zen grabaketa, lehen saiakeran egin baitzen dena. "Urte berri on kalamidadiak!" adierazi bitarteko minutu guztiak jarraian grabatu ziren. Entseatz gero ez zen hobeki irtengo.

Gauaren isiltasuna, Maindi iturriaren jarioa, Zelai ahizpen umorea... oso oroitzapen oneko grabaketa saioa izan zen bertan izan ginen denontzat.

Eskertzekoa da etxekoei, atsedaldiari edota loari orduak kendu zizkien taldeak egindako lan guztia. Beti ere komunitatea gogoan. Izan ere, asmoa horixe zen: Pantailaren bestaldean zeudenei poz txikia eskaintzea, garai zail hauetan.

Txaloak eta eskertza Ane Jalon eta Garazi Kamiori, eta abentura ero eta polit honetan bidelagun izan genituen lankide guztiei. Errepikatuko dugu.

## Grabazio eguna abenduaren 22an



Aguado, Aiertza, Cabrera eta Arberas, grabaketa saioan. AIURRI

**Zumea kalea** Maindi iturriaren paretik egin zen grabaketa, abenduaren 22an. 21:15ak aldera hasi zen muntaketa lana, eta grabazioa 22:00ak pasatxo hasi zen, kalean jenderik ibiltzen ez zela baliatuta. Aurretik baimena eskatu zen Udaletxean.



Kamio eta Jalon kamera nagusiaren aurretik, promoziorako saioan. AIURRI

**22:00ak pasata** Grabazioa segidan egin zen, mozketarik egin gabe. Artistek prestaketa lanak ondo egin zituzten seinale. Antzeppen lanak amaituta, promoziorako bideoa grabatzeari ekin zioten. Abenduaren 28an, egun seinalatuan, zabaldu zen promozio bideoa.



Lantaldea, lanak amaitu osteko argazkian. AIURRI

**Lantaldea** Mikel Arberas, Ane Jalon, Garazi Kamio, Alba Cabrera Jauregi, Xabier Lasa, Jon Ander Ubeda, Ainhoa Aiertza eta Arantza Aguado. Alberto Rubio falta da argazkian. Bederatzi lagun elkartu ziren, beraz, kanpaikaden ekoizpenerako.

# Errege Magoen etorrera Urnietako Udal frontoira

Arratsaldean hasita, Urnietako haurrek Errege Magoei gutuna emateko aukera izan zuten. Baita oparia jasotzeko tarte ere. Pandemia betean izan arren, aspaldiko ohiturari eutsi diote herrian



Haurrek gutuna emateko aukera izan zuten. AIURRI

## Erredakzioa URNIETA

Aurretik hitzordua hartuta bertaratu ziren familiak Udal pilotalekura. Bertara sartu, eta parez pare topatu zituzten eserita Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeak. Gutuna eskura eman, bi hitz egin eta oparia eskutan irten ziren Urnietako haurrak. Kabalgatarik egon ez arren, Errege Magoek ez zuten hutsik egin. Ekitaldia aurrera eramateko prebentzio eta segurtasun neurri zorrotzak bete zituzten.



Urnietako haurrek Errege Magoak ikusteko aukera izan zuten. AIURRI



Errege Magoak Andoaingo udal batzaraldi aretoan. AIURRI

## Errege Magoak pantailaren bitartez iritsi ziren Andoainera

Arduratsu izaten jarraitzeko eskaera egin zieten Andoaingo haurrei

### Erredakzioa ANDOAIN

Pantailaren bidez, horrela iritsi ziren Andoainera Baltasar, Meltxor eta Gaspar erregeak Andoainera. Hirugarrenen eta azken bideoan udalerrira iristen ikus zitezkeen. Haur bat gutuna idazten ikus daiteke, eta segidan udaletxera iristen. "Aurten ez

dugu galdetu behar izan nola portatu zaretan, badakigu eta. Inoiz baino hobeto portatu zaretan. Zuek izan zarete etxeko poza eta alaitasuna. Harro gauden zuen jarrera onaz".

Arduratsu izaten jarraitzeko eskaera egin zieten Andoaingo haurrei.



Mendialdetik barrena ibili ziren, herrigunera iritsi arte. AIURRI



Urnietako  
udala



andoainDARRA  
euskaraz



Olentzero, Ainara Isasti, June Garcia eta Mari Domingi Marizulo baserriaren ondoko karobian. AIURRI

## Ez zuten hutsik egin

Pertsonaia mitologikoez ezin izan dute urtero legez kaleak zeharkatu, madalenak banatu eta musuak eman. Aurtengoan, Egape dantza taldekoekin batera, bideo-muntai ederra egin da ilusioa eten ez dadin

### Mikel Arberas URNIETA

Urtero haurrak eta helduak pozez txoratzen egoten dira Mari Domingi eta Olentzero noiz igaroko zain. Aurten, egoera epidemiologikoa dela medio, pertsonaia magikoez ezin izan dituzte Urrietako kaleak zeharkatu. Hala ere, zerbait berezia prestatu nahi izan dute. Horretarako, bideo-muntai eder bat egin zuten Aiurriekin eta Egapekoekin elkarlanean.

Lehenik eta behin, bideoaren hasieran pertsonaia mitologikoez mezu polit bat zabaldu zuten. Ondoren, *Ole-Olentzero* kanta ezaguna oinarritzat hartuta, Olentzerok, Mari Domingik eta Ainara Isasti eta June Garcia dantzariak bideo ikusgarria osatu zuten. Dantzariak koreografia polita eskaini zuten Marizulo baserrian, inguruko belazean eta baita ikatza egiten duten karobian ere.

Madalenak eta muxuak banatu ez zituzten arren, etxe gutietara gerturatu ziren poztasuna eta opariak banatzera. Ezohiko egoeran, hori bai.



Marizulo baserriaren kanpoaldean ateratako argazkia. AIURRI



Ez dute hutsik egiten Mari Domingik eta Olentzerok. AIURRI

## Pantaila bidezko etorrera



Olentzero eta Mari Domingi, Andoainen. AIURRI

**Olentzero eta Mari Domingiren mezua** Poz handia jaso zuten, herrikideen gutunak jaso eta gero. Horixe adierazi zuten, astoa lagun, Mizpiradi sagardotegi inguruan egindako adierazpenetan. Maite ditugunoi idazten jarraitzeko deia luzatu zuten.



Oporraldiaren aurretik iritsi zen haurrengana. AIURRI

**Mari Domingi ikasgeletan** Bigarren bideoan Mari Domingi ikusi daiteke, haurrei Olentzeroren etorreraren berri emanez. Gutunak bidaltzeko eta pantailara adi egoteko mezua zabaldu zien, Gabonetako oporraldiaren aurretik egindako bideoan.



Andoaingo Buruhandiak, Idiazabal etxearen pareko tunelean. AIURRI

**Gutunarekin buzoira** Lehen bideoan, postontziaren bila ikusi genituen Andoaingo Buruhandiak. Hiru bideo sortaren lehena izan zen, Etxeberrietako Jai Batzordeak eta Aita Larramendi ikastolak argitaratu zuten.





Itxaspe janari dendako produktu sorta eta Etxaniz burdindegiko zartagi sorta, sariduneren eskuetan. URNIETAKOMERKATARIAK



Urnieta elektrizitatea eta Edurne lore-dendako produktuak, saridunekin batera. URNIETAKOMERKATARIAK



## Zozketa eta ekimen ezberdinak Gabonetan

Urnieta-ko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen alorreko elkarteak interes handia piztu duen sari banaketa ekitaldia antolatu zuen Gabonetan. Ostalaritzari babesa emateko ahaleginak poz txiki ugari banatu ditu udalerrian barrena

### Erredakzioa URNIETA

Erosketa-bonoak, ileko plantxa, langostinoak, ardoa, sagar-tarta, mahai gaineko LED flexuak... sari ugari banatu ditu Urnieta-ko merkataritza elkarteak. "Ni ere ostalaria naiz" izenburupean kanpaina abiarazi zuen, euro bateko txartelak eskainiz. Nahi adina eros zitezkeen, eta saria lortzeko aukera ugari. Pandemiaren gain, Eguberrietan zeresana eman duen kontuetako izan da.

Etxeberri plazan, osterara, dekorazio onena saritu zuten.



Etxeberri plazako Jai Batzordeak dekorazio onenari saria eman zion Lourdesi. AIURRI



Uxue Alberdi, Miren Amuriza eta Nerea Ibarzabal bertsolariak. AIURRI

## Errimen epeletan, Sarobe antzokian

Lourdes Iriondo gogoan hartu zuten bertsolarien, Poxta Zahar taldeak antolatutako saioan

### Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Lau aulki, lau mikrofono ohol-tzaren erdian: Irati Zinkunegi gai-jartzaile urnietarra eta hiru bertsolari; ezker-eskuin Uxue Alberdi, Miren Amuriza eta Nerea Ibarzabal. Erretratu horixe bera utzi zuen urteko azken igandeak Urnieta-ko Sarobe arte eszenikoen gunean. Hilabete lehenago behar zuen hitzorduak, baina saioa eten egin zen egoera epidemiologikoa medio.

Egunerokotasunaren irakurketa egin zuten, eta koronabirusak gurean utzitako arrastoa ezin uka daitekeenez, saioan ere izan zuen tarte pandemiak. Hala ere, Zinkunegik ondo baino hobeto eutsi zion gaiari, eta originaltasunez erreparatu zioten bertsolarien bat-bateko ariketan. Horrez gain, hainbat gorputzen azalean ipini zituen urnietar gazteak kantuan protagonistak. Ama batek zazpi urteko alabari masturbazioa eta klitoria zer diren azaltzen ikusi genituen,

baita etxe bila dauden gazteak beren etorkizunaren gainean eztabaidan entzun ere. Gainera, efemeride bati gorazarre egin zioten, Lourdes Iriondori, hain zuten. Beharbada, abeslariaren heriotzaren hamabostgarren urtemugan herrian egindako omenaldi bakarra eta ederrena izan zen igande hartakoa. Hiru emakume bertsolari, plazan arrastoa utzi zuen beste emakume abeslari batez bertsotan.

Barrerako beta eman zuten hitzorduak, eta zaleen algarak entzuteaz gain, izugarri aberastu zuen saioa bertsolarien arteko konplizitateak. Nor bere itxialditik, plaza hutsetik jardun zen, zomorroak utzitako zamatatik naiz bermatutako aukeretatik. Sarritan hitzez adierazteko zaila den hori kontatu zuten kantuan. Bertsolarien bat-batekotasunak betekotasunetik ateratu zituen entzuleak, eta neguko hotzak urtu zituzten bertsoek, doinuen eta errimen epeletan.



Poxta Zahar gazte taldeak antolatu zuen Urnieta-ko bertso saioa. AIURRI



Prebentzioz, eguneko egoitza ixtea erabaki du Andoaingo Udalak. AIURRI

## Andoain eta Urnieta, txanpon epidemiologikoaren bi aldeak

Urnieta eremu berdean dagoen udalerrri bakarretakoa da. Andoainen 16 kasuren berri eman zuten hilaren 5ean

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN

Zer gertatzen ari da azken astean, Euskadin? Positibotasun tasa %7an kokatu dela, eta hori berez datu kezagarria dela. Eta Andoainen? Galderak ez du erantzun errazik, erakundeen aldetik udalerrietako informazio gehigarririk ez baita ematen. Osakidetzak emandako datuak interpretatzea da eskura dagoen tresna bakarra. Eta datuei erreparatuta, harridura sortu zuen urtarrilaren 5ean agertu ziren 16 kasu positiboak. Egun bakarrean 16, bai.

Egin kontu abenduaren 2tik 8ra, denera, 3 kasu positibo agertu zirela. Eta abenduaren 9tik 15era, aldiz, 9. Egoera epidemiologikoa nabarmen bideratzen ari zenean, egun bakarrean 16 kasu berri agertu izanak kezka eragin beharko luke. Eremu laranja sartu da Andoain. Aukeran, hobe Andoaingo egoera Urnietakora gerturatzea. Urnieta eremu berdean dagoen udalerrri bakarretakoa baita. Birusa kontrolpean dagoen kolorea da berdea, osasun agintariak ezarritako irizpideen arabera.

## Pandemiaren garapena, astez aste

### ANDOAIN

- Abenduak 30-Urtarrilak 4: 28 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 313,58.
- Abenduak 23-29: 18 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 267,65.
- Abenduak 16-22: 21 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 200,74.
- Abenduak 9-15: 9 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 80,29.
- Abenduak 2-8: 3 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 194,04.
- Azaroak 25-abenduak 1: 26 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 515,22.
- Azaroak 18-24: 51 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 796,25.

### URNIETA

- Abenduak 30-Urtarrilak 4: 2 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 48,32.
- Abenduak 23-29: 1 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 16,16.
- Abenduak 16-22: 0 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 113,09.
- Abenduak 9-15: 7 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 161,55.
- Abenduak 2-8: 3 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 113,09.
- Azaroak 25-abenduak 1: 4 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 274,64.
- Azaroak 18-24: 13 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 306,95.

## 464 isun Gipuzkoan Urte Zaharreko asteburuan

Ertzaintzak eta udaltzaingoek guztira 1.424 isun jarri zituzten Euskadin

**Erredakzioa** ANDOAIN

Eusko Jaurlaritzak Gabonen aurrean ezarritako Dekretuak betebeharrak batzuk ezartzen zituen, nagusiki mugikortasunari eta gaueko ordutegiari dagokionez. Neurri horiek betearazteko kontrolak egin zituzten Ertzaintzak eta tokian tokiko Udaltzaingok. Abenduaren 31tik urtarrilaren 3ra 1.424 isun bideratu ziren, guztira. Horietako gehienak, 667, "mugikortasunean ezarritako mugak urratzeagatik edo gehienez sei pertsonako taldetan elkartzeko murrizketa ez beteagatik" jarri zituztela adierazi du Eusko Jaurlaritzak. Eta horietatik "442 isun, zehazki, gaueko ordutegian zirkulatzeko arauak ez errespetatzeagatik".

Maskara ez janzteagatik edo behar bezala ez erabiltzeagatik, berriz, guztira 303 isun bideratu zituzten. Kalean alkohola kontsumitzeagatik jarritako isunen kopurua 156ra iritsi zen. Ostalaritzan eta jatetxeetan aforoei buruz ezarritako araudia ez beteagatik beste 142 isun jarri zituzten. Kalean pertsonen artean bi metroko tartea utzi gabe erretzea eta ostalaritzari dagokion ordutegia ez betezea izan ziren isuna jartzeko beste arrazoietakoa.

## "Egoera epidemiologikoa ez da ona, kezagarria da"

LABI batzordea urtarrilaren 4an elkartu zen, eta beste bi bilera berri deitu dituzte datozen egunetarako

**Erredakzioa** ANDOAIN


Jonan Fernandez LABIko Batzorde Teknikoaren koordinatzaileak egoera epidemiologikoaren berri eman zuen, joan zen urtarrilaren 4ko bilera teknikoaren ostean: "Tokiko egoe-



IREKIA, URTARRILAK 5

## UCI-ZIUko okupazioa, egonkor

Azaroako ospitaleratzeen datua nabarmen jaitsi da, eta UCI-ZIU zainketa berezietan dagoen lagunen kopurua ere egonkor samarra da. Urteko azken astean 80tik gorakoa zen, eta urte berria 80ko okupazioaren azpitik dago. Osakidetzako ospitale sarean dagoen herrikideen kopurua 300 lagunen azpitik dago. Abenduaren 22an gainditu zuen langa hori, baina azken bi asteetan aldagai hori azpitik dago.



IREKIA, URTARRILAK 5

## Oinarrizko birsorkuntza tasa

Urtarrilaren 1etik aurrera marra gorriaren gainetik dago oinarrizko birsorkuntza tasa, eta hori kezkatzeko modukoa da adituentzat. Izan ere, kutsatze-prozesuetan 1etik gorako tasak adierazten du kutsatu bakoitzak pertsona bat baino gehiago kutsatzen ari dela. Azaroan eta abenduazpitik ibili eta gero, urtarrilean tasa etenik gabe gorantz doa.

gure inguruko herrialdeetan gertatzen ari den bilakaera negatiboak ez du inolako erlaxazioz ahalbidetzen.

Bestalde, Euskadin gutxienez sei kasu agertu dira Erresuma Batuan mutaturako birusaren "cepa" edo anduiarekin lotuta, eta, beraz, kontu handiz ibili behar da.

Ziurgabetasun-testuinguru batean gaude, eta horrek eskatzen du datuak ahalik eta gehien zaintzea eta kontrolatzea eta egunero monitorizatzea".

# Imanol Ansa binakakoan azpi-txapelduna

Larunbatean jokatu zen erremonteko 50. Binakako txapelketa Galarreta frontoian. Norgehiagoka berezia, ikuslerik gabekoa eta zirrargarria izan zen. Urrizaren esperientziak eta Labakaren segurtasunak garaipenerantz bideratu zituen



Ansa, Aizpuru, Labaka eta Urriza sari banaketa ekitaldian. UTS

## Mikel Arberas HERNANI

Urriza eta Labaka dira binakako erremonteko txapelkun berriak, finalean Ansa II-ri eta Aizpuru III-ri 40-31 irabazita. Gorriek gogor ekin zioten norgehiagokari eta hasieran lortutako zazpi tantoko abantailari eutsi zioten ia amaierara arte. Bikote urdinak ez zuen partida ondo hasi eta, ondoren, finalari beste aurpegiera bat erakusten saiatu ziren, baina akatsak garesti ordaindu zituzten.

Urrizak seigarren txapela eskuratu zuen larunbatean eta guztiak atzelari ezberdinekin irabazita. Atzelari azpeitiarrak aurten egin du debuta txapelketa nagusian eta maila bikaina erakutsi du. Labaka izan zen finalean maila onenetik gertuen egon zen pilotaria eta, gainera, lasai egon zen, urduritasuna alde batera utzita. Iruindarrak ez zuen bere partidari onena egin erasoan, baina defentsa ikaragarria erakutsi zuen.

Ansa-Aizpuru bikotea urduri egon zen, hasieran batez ere. Arregatasunaren ondorioz 12-4 galtzen hasi ziren, alde handiegia Urrizaren aurkako partidari bira emateko. Desabantaila



Ansa, finalaren une batean. UTS

murritzeko ahaleginak egin zituzten arren, ez ziren bost tanto baino gutxiagora hurbiltzen. Aizpuruk bi sake falta ere egin zituen eta Ansaren akatsak ez zieten gehiago gerturatzen uzten.

Gorriak indar gutxiagorekin iritsi ziren amaierara eta bikote urdina lau tantora hurbildu zen azkenean (34-30). Txapelketa finalera arte ez zuten partidari galdu, baina norgehi-

goka erabakigarrian ez zuten maila erakutsi.

Gerriko gorridunek merezimendu guztiz irabazi zuten txapela. Hauek ere, partidu bakarra galdu zuten eta Urrizak erremontistari onena dela erakutsi du. Finaleko jokalaririk onena bezala aukeratua izan zen eta txapelketa aurrelari hoberenaren saria jaso zuen. Atzelari onena, berriz, Barrenetxea izan zen.

Finalean Urrizak 15 tanto eta bi akats egin zituen, Labaka bikain aritu zen lau tanto atera eta sei tanto egin ondoren. Urdinetan, berriz, Ansa puntu asko egin zizkien erasoan, baina behar baino akats gehiago egin zituen. Aizpuruk ez zuen aurreko partidako maila erakutsi. Partida akats gutxien egin zituen bikoteak irabazi zuela argi dago. Tantoak egitea garrantzitsua den arren, ezin dira akats ugari egin, are gutxiago Urriza bezalako esperientzidun pilotari baten aurka. Horrez gain, bikote garaileak segurtasuna handiarekin jokatzeaz gain, defentsa ikusgarria erakutsi zuen. Esaerak dioen bezala, eraso hobereana defentsa on bat izan daiteke.

## POSTONTZIA

BULTZA KIROLA EUSKADI

## Manifestua



BULTZA KIROLA

Behean sinatzen dugun klub eta elkarteek ez dugu ulertzen Eusko Jaurlaritzak hartu duen erabakia, non bertan behera utzi dituen kirol ekintzak eskola mailan eta federatu mailan.

COVID-ak kirol jardueretan orain arte izan duen kutsatze-maila %0,28 eta %0,30 bitartean dago. Beste arlo batzuetan kutsatze-maila altuagoa izan da eta arlo horiek martxan daude. Aurtengo denboraldian, berau prestatzea eta martxan jartzea sortu digun lan gehigarri guztia, 3 edo 4 aldiz biderkatu da lan hori, dokumentazioa, ikastaroak... Ematen du hau guztia Eusko Jaurlaritzak ez duela kontuan izan.

Pandemia hasi zenetik umeek eskola galdu zuten, gero uda partean udalekurik ez, kirol jarduerarik ez, kultur jarduerarik ez... Iraila heldu zen eta umeak, gazteak eskola eta ikastolara bueltatu dira baina bien bitartean eskola kirola bazterrean utzi dute Eusko Jaurlaritzak eta Aldundiek. Prebentzio neurri gisa debekatuta dago eskola kirolean eta federatutan entrenatzea ere! Ulergaitza egiten zaigu harturiko neurri hau, azken batean, klubek, elkarteek,... protokolo zehatz bati aurre egin behar diogu edozein gauza egin nahi dugunean. Ibilbideak, seinalizazioa, aforoak, desinfekzioa, tenperatura

hartu, erantzukizuna hartu finean. Eta erantzukizuna hartzeko prest egon arren ez digute uzten gure eskoladina eta federatuak diren kirolariak entrenatzen.

Eskola kirolaren eta federatuaren jardunean aurrera ez egiteak ekarriko du klub eta elkarteak hustutzea, jendeak ez jarraitzea eta azken batean kirolarengandik aldentzea eta beste jardura individual eta sozialagoetara jotzea, jardura ez osasuntsuak garatzea, eta horrela ez bada, kalean egongo dira, elkarrekin, akaso distantziak gorde barik, akaso maskara barik, inork desinfektatzen ez dituen zabu, txirrista... eta seguruenik haien aisia pasatzeko alternatiba barik.

Orain arte kirola egitera joan direnean era ordenatuan, momentuaren beharretara egokituz, protokoloak zainduz, arduraz jokatuko dugu kirol elkarteetan eta horren ordainean, zer?

Administrazioek errazena egin dute berriro ere, jakin gabe horrek zer nolako ondorioak izan ditzakeen.

Honexegatik behean sinatzen dugunok eskatzen dugu kirol jarduerari ekitea eta aldi berean berresten dugu hartu beharreko neurriak hartuko ditugula kirol jardura, orain arte bezala, jardura segurua izan dadin. Kirolari bai!!!!



Mujikatarren doinupean, herritarrek kandelak utzi zituzten manifestazioaren pankartaren aurrean. AIURRI

## Presoen eskubideen alde, Andoainen eta Urnietan

Sasoi honetan nazio mailako manifestazio jendetsuak antolatu ohi ditu Sarek, Bilbon eta Baionan. Pandemia betean, deialdia udalerrietara egokitzea erabaki dute. Andoainen eta Urnietan hitzordu bana izango da, larunbat honetan

### Erredakzioa ANDOAIN

Bi aldarrri nagusi gailenduko dira aurtengo mobilizazioetan:

- Urruntze politikarekin behingoz amaitzea. Aldaketa batzuk ematen hasiak diren arren, oraindik ere, ez da benetako hauturik egin urruntze politikarekin amaitzeko. Euskal presoek Euskal Herriko espetxetan egoteko eskubide osoa dute, legeak hala jasota. Ondorioz, aldarrri hori lehen leerroan ezarri dute, senideei orokorrean eta bereziki haurrei eta nagusienengan duen eragin zigortzailea ahaztu ezinean.
- Euskal presoek sistematikoki ukatu izan zaien eta etxerako bidea ahalbidetzeko behar beharrezkoa den gradu progresioa ezartzearen eskakizuna. Izan ere, Oraindik 107 dira lehen graduan jarraitzen duten presoak, eskubide ugari murrizten zaizkielarik.

Salbuespenezko espetxe politikaren aldaketaren urtea izatea eskatuko dute, herriz herri.



EH Bilduk azken agintaldietako hautetsiak. AIURRI

### EH Bilduk deialdiarekin bat egin du

"Urteak dira herri honetan bakea eta elkarbizitza eraikitzeke prozesua abiatu zenetik. Presoen eremuan oso mugimendu gutxi eman dira, eta COVID-19 egoerak, krudeltasuna areagotu besterik ez du egin. Ahaztu gabe, oraindik espetxe mehatxuarekin jarraitzen dutela herritar ugari, adibide gisa azken asteotan Bateragune auzia berriz ere epaitzeko egin duten mugimendua, edo Ruben Gelbentzu andoaindarraren berriz ere auzipetuz egin dutena. Errepresioa eteteko eskaera luzatu nahi dugu".



Elkarretaratzea egin zuten Andoainen, abenduaren 28an. AIURRI

### Lizarribar eta Gelbentzuren elkartasuna, Andoainen eta Urnietan

Espainiako justizia administrazioan atzera begira jarri dira, eta 2003an eta 2013an artxibatutako kausa bat berriro irekitzea erabaki du. Auzi horrek zuzen-zuzenean eragiten die Ruben Gelbentzu andoaindarrari eta Jon Lizarribar urnietarrari. Abenduaren 28an deklaratzera deitu zituzten, eta iluntzean Zumea plazan egindako agerraldian egoeraren berri eman zuten. Bideokonferentzia bidez egin zuten deklarazioa, eta Gelbentzu egun Nafarroan bizi denez, Iruñean deklaratu behar izan zuen. Saioa azkarra izan omen zen, 15 bat minutukoa eta, horren ostean, baldintzapekok askatasunean geratu direla jakinarazi zieten. Hala ere, hamabostean behin sinatzera joan beharko dute.

Zumea plazako elkarretaratzean salaketa gogorra egin zuten: "Gutziz salagarria da aurrez atxilotua izan delako, eta birritan ezerezean geratu direlako akusazioak. Rubenekiko duten obsesioa ikaragarria da eta horregatik ozen eskatzen dugu bakean utzi dezatela eta errepresioa eten dezatela".

Urnietan ere elkartasuna adierazi zieten. Urnietako Sarek honakoa adierazi zuen: "Urte luzetako gatazka politikoa gaudituz nahi ez eta, halako sumarioak tarteko, epaitegietara bultzatzen du jendea Estatu espainiarrak behin eta berriz.

Urnietako Sarek, konponbide garaia, bizikidetzeta eta bakea eraikitzeke garaia dela ozen aldarrikatu nahi du".

Egun batzuk lehenago, Genbeltzuren lagunek gutuna argitaratu eman zuten: "Rubenek libre bizitzeko eskubidea du. Bere aurkako jazarpena etetea merezi du. Urte hauetan guztietan oinarririk gabeko jazarpen bat sufritu du eta inputazio berri honek, berriz ere, berarentzat eta bere senide eta lagunentzat bidegabeko sufrimenduaren gorpila martxan jartzea dakar".



Elkarretaratzea egin zuten Urnietan, abenduaren 28an. AIURRI



# Aiurri.eus, Gabonetako albistegia



Urtarrilak 6: Izotza



Urtarrilak 5: Errege Magoak Urnietan



Urtarrilak 4: Merkataritza ekimenak



Urtarrilak 1: Adarramendiko irudiak



Abenduak 31: Kanpaikadak



Abenduak 28: Errege Magoen atarikoa



Abenduak 27: Egoera epidemiologikoa



Abenduak 24: Olentzero eta Mari Domingi



Abenduak 24: Olentzero eta Mari Domingi

## HITZORDUAK

UDAN ZEHAR EKITALDIK AIURRI.EUS GUNEAN ZABALDUKO DIRA. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTIRALA 8

## URNIETA Dantza

Egaperen ikuskizun bikoitza: "Egun garelako", eta ondoren "Almanakea".  
**Sarobe, 18:00 eta 19:30.**

## LARUNBATA 9

## URNIETA Kontzentrazioa

Sarek antolatuta.  
**17:30 Idiazabal kalea.**

## ANDOAIN Manifestazioa

Sarek antolatuta.  
**17:30 Goikoplaza.**

## URNIETA Dantza

Egaperen ikuskizun bikoitza: "Egun garelako", eta ondoren "Almanakea".  
**Sarobe, 18:00 eta 19:30.**

## IGANDEA 10

## URNIETA Haur antzerkia

Kontu kantari: "Mendia ibiltari".  
**Sarobe, 18:00. 3 euro.**

## ASTEARTEA 12

## ANDOAIN Erakusketa

Leire Salaberriaren ilustrazio lanak.  
**Bastero Kulturgunea.**  
**Urtarrilak 12-otsailak 4.**



Ane Labaka bertsolaria eta Beatriz Egizabal antzezlea. MONDRABERRI

## URNIETA "Erradikalak ginen" antzezlana

"Erradikalak ginen, gara eta izango gara. Neska gazte promesa etiketaz, zahartzeaz, gorputzaren aldaketaz, sexualitateaz, merkatu patriarkalaz, interseksionalitateaz, beldurraz, biolentziaz eta zeharkatzen gaituzten beste hainbat gaiz kantatu eta kontatu nahi dugu. Feminismoa zeharlerrotzat hartuta eta umorez. Umorez, beraz, serio".

**Urtarrilak 15, ostirala. 19:00. Sarobe. Antolatzailea: Poxta Zahar.**

## ANDOAIN Odol emailea

Izena-emateko: 943 007 884  
**La Salle Ikastetxea, 16:30-20:10.**

## ANDOAIN Antzerkia

Mauthausen, Trajin konpainia.  
**Sarobe, 19:00.**

## OSTIRALA 15

## URNIETA Antzerkia

Erradikalak ginen antzezlana.  
**Sarobe, 19:00.**

## IGANDEA 17

## ANDOAIN Haur antzerkia

"Alpha. Lo egiteko ordua".  
**Bastero, 17:00. 4 euro.**

## Jendetza Besabi aldean


Urtarrilaren 1erako egindako gomendioak eta oharrak eraginkorrak izan ziren, eta aurreko urteetan baino askoz ibilgailu gutxiago gerturatu zen Besabi aldera. Biharamunean hasi zen, ordea, "erromesaldia". Elurrak erakarrira, eta Gabonetako oporraldia tarteko, dozenaka ibilgailu ikus zitezkeen Besabi aldean. Urtarrilaren 3an, ibilgailuak nonahi utzita zeudela ikusita, isunak jartzeari ekin zioten. Hurrengo egunetara luzatu zen "erromesaldia".



## ZORION AGURRAK



ANDOAIN  
**Elene Idigoras Alfageme**  
13 urte dagoeneko maizia. Barre egiten duzunean politago zaudela badakizu, ezta? Mila muxu potolo etxeko guztien partez.



ANDOAIN  
**Hodei Rabadan Larrea**  
Gure mutikoak 4 urte bete zituen urtarrilaren 5ean. Olentzero batetik eta bere eguna bestetik opari eta muxu pila izan ditu.



ANDOAIN  
**Indar Fernandez Saez**  
Urte berezi hontan gure kuadrillako txikiak ohartu gabe urtebete beteko du! Zorionak pottoko ta bikain pasa eguna, familia!

## GUARDIAKO FARMAZIAK

## ANDOAIN

## Larunbata 9, igandea 10


Zatarain: Elizondo, 6. Arteta z/g.  
943 590 802. Andoain.

## URNIETA

## Larunbata 9, igandea 10

Urrutia: Etxeberri, 1. Florida.  
943 557 738. Hernani.

## ZINEMA



## ANDOAIN

## BASTERO

## Mi amigo pony

Haurrentzat:  
Larunbata, 9:  
16:30.  
Igandea, 10:  
16:30.

## Madame Curie

Larunbata, 9:  
19:00.  
Igandea, 10:  
19:00.  
Astelehena, 11:  
19:00.  
Ikuslearen eguna.



## SINOPSISIA



## Madame Curie (Radioactive)

**Zuzendaria:** Marjane Satrapi. **Gidoia:** Jack Thorne, Marie Curie.

**Aktoreak:** Rosamund Pike, Sam Riley, Anya Taylor-Joy, Aneurin Barnard, Simon Russell... **Herrialdea:** Britainia Handia (2020).

**Generoa:** Drama. **Iraupena:** 109 min.

## Zientzialariaren bizitza, zinemara

Zientzia munduan bidegilea izan zen Marie Curie. Bere ibilbidean zehar egindako lanagatik Nobel saria jasotzera iritsi zen. Radioaktibitateari esker medikuntzan aurrerapen

handiak lortu zituen. Era berean, lorpen horiek beste erabilpen batzuetarako erabili ziren. Gerrarako, besteak beste. Bere bizitzan oinarrituriko filma da.



Egape dantza taldeak estreinaldia egin zuen udan. AIURRI

# Dantzan hasiko dute urtea Urnietan

Gogoz hasi du Egape dantza taldeak urte berria. “Egun garelako” eta “Almanaka” emanaldiak ikusteko aukera izango dute herritarrek bihar eta etzi. Sarrerak jada eskuragai daude Sarobe arte eszenikoen gunean

## Alba Cabrera URNIETA

2020. urtea zamatsua izan bada ere, ez da oztopo izan Urnietako herritarrentzat euskal dantzaz gozatu eta gozarazteko. Denbora luzez egon dira itxita aretoak, eta aukera mugatua izan dute dantzariak biltzeko eta entseatzeko. Hala ere, Egape dantza taldeak urteroko konpromisoari eutsita, bi emanaldi egingo ditu bihar eta etzi taldeko dantzari gazteen eskutik. Bi ikuskizun izango dira eguneko, bata bestearen atzetik, 18:00etan eta 19:30ean.

“Egun garelako” emanaldian egunerokotasuna irudikatzea izan dute oinarri, eta eguneroko bizipenak atzemango ditu ikusleak bertan, gorputzaren mugimenduaz adierazita. Esanahi zabaleko izenburua ipini diote arratsaldeko 18:00tako ikuskizunari: batetik, eguneroko ekin-tzek nortasuna eraikitzen dutelako; bestetik, pasa den urteak utzitako korapiloak korapilo, tinko jarraitzen dutelako. Beraz, erraz identifikatuko dituen egorekin egingo du topo bertaratu den orok.

Bestalde, “urtean ospatzen diren usadioen ibilbidea” kon-

tatzen du “Almanaka” 19:30eko ikuskizunak. Bertan, hilabete batetik bestera salto egingo du ikusleak, musikak eta dantzak gidatuta. Joan den urteko irailaren 19an aurre-ekoizpenaren erakustaldia egin zuten udal pilotalekuan. Asteburu honetako hitzorduan, emanaldia osorik ikusteko aukera izango da. Gainera, dantzariak ez ezik, beste hainbat gaztek kolaboratu dute proiektuan: besteak beste, Lear taldeak, Maialen eta Jone Izagirre ahizpek eta Naroa Agirrek doinua ipini diete Aiatz Hernaniren bertso idatziei.

Ostiraleko emanaldia gonbidapenarekin izango da, eta, aldiz, larunbatekoa herritarrei zuzenduta izango da. Azken horretara joateko sarrerak jada eskuragai daude 3 euroan Saroben. Egunean bertan ere erosteko aukera izango da txarteledegian.

**EGAPE DANTZA TALDEAK URTEROKO KONPROMISOARI EUTSITA, BI EMANALDI EGINGO DITU**



EL  
CONQUISTADOR  
DEL CARIBE

**BIZI EZAZU  
ABENTURA**  
estreinaldia  
urtarrilak 11 astelehena





Urrutia teknikaria, Ruiz zinegotzia eta Salaberria ilustratzailea programazioaren aurkezpen ekitaldian. UDALA

# Kultur-eskaintza oparoa urtea hasteko Andoainen

Pasa den abendurako "Gabon Giroan" programazioa osatu zuen Andoaingo Udalak, pandemiak sektorean utzitako zuloa estali asmoz: 2.200 lagunetik gora pasa dira Basterotik Gabonetan. Hiru hilabeteko egitaraua egin du urtea indarrarekin hasteko

## Erredakzioa ANDOAIN

2021. urtean ez da kulturarik faltako Andoainen. Joan den urtean hartutako dinamikari eutsi nahian, kultur-programazio zabala osatu du Andoaingo Udalak urteko lehen hiruhilekorako. Hamaika artista pasako dira oholztatik urtarriletik martxora bitartean.

Leire Salaberria ilustratzaile andoaindarrak irekiko du kultur-egitaraua, urtarrilaren 12tik ostailaren 4ra bitartean izanen den erakusketarekin. Bertan, liburuetarako eta karteletarako osatu dituen ilustrazioen bilduma zabala izango da ikusgai.

Antzerkiaz gozatzeko aukera ere emango du kultur-eskaintzak. Lehenik, Trajin teatro konpainia igoko da agertokira, "Mauthausen" obrarekin. Asteburu berean, "Alpha. Lo egiteko ordua" haurrei zuzenduriko antzezlan egongo da ikusgai, beldurrak eta sentimenduak hizpide dituen lana, hain zuzen. Hori ez ezik, pailazoez gozatzeko beta ere izango dute umeek, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen "Amaren intxaurrak" obrarekin.

Musika ere badu oinarrian egitarauak. Gauzak horrela, Willis Drummond taldeak irekiko du kontzertuen agenda. Eta haren atzetik arituko dira hilaren amaieran Korrontzi eta Xabier Amuriza, taldearen hamargarren lanarekin. Euskal koplagingtzak musika herrikoian duen garrantzia izango dute oinarri emanaldian.

## 2021 hasiera oparoa Basteron

- Urtarrilak 12-otsailak 4: Leire Salaberria ilustratzailearen erakusketa.
- Urtarrilak 15: Mauthausen.
- Urtarrilak 17: Alpha, lo egiteko ordua.
- Urtarrilak 22: Willis Drummond.
- Urtarrilak 23: Pirritx, Porrotx eta Marimotots.
- Urtarrilak 28: Korrontzi eta Xabier Amuriza.

## Sarreraren salmenta

Datorren astelehenean aurrera, urtarrilak 11, Kutxabank bidez salgai jarriko dituzte. Udalak sarrerak modu elektronikoa erostea gomendatu arren, aurrez aurreko salmenta aukera ere izango da, goizean 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldean 16:30-19:30 artean. Betiko lez, Basteroko harrera-gunean eskuratu ahal izango dira. Pertsona bakoitzak 5 sarrera erosi ahal izango ditu gehienez ere.

Bazkideek abantaila izango dute. %25eko beherapenez gain, hilaren 7tik sarrerak eskuratze-ko aukera izango dute.

# MATRIKULA

## BILERA INFORMATIBOA

**2 URTE**  
Urtarrilak 14, 17:00etan Lekaion

**DBH**  
Urtarrilak 21, 17:00etan Lekaion

# EGAPE

Urnietarron ikastola publikoa





www.egape.eus

